

MATERIALISMORIK GARBIENA

Filosofia da zientzien zientzia, eta zientzien zientzia bezala ez da literatura, ez da artea, eta filosofia egiterakoan, idazterakoan, ez da okupatzen ederraz eta bai egia bilatzen du. Hain zuzen ere, egiaren bilatzea, eta inoizka aurkitzea, da filosofoaren zeregin handiena, bakarra ere, eta horretan datza haren lana edo beharra.

Izan dira historian filosofoak oso ederki espresatu direnak, eta hizkuntza garbiaren eredu ere izaten ahal direnak, hala nola Hegel eta Shopenhauer, eta justiziaz deituak izan daitezke hizkuntzaren maisu, titulu hori erreserbatua dagoenean literatura egiten dutenei, eta ez nahitaez egia bilatzen dutenei. Zeren edertasuna bada ere presentazio kartarik hoberena engainua ere ezkuta dezake, eta holaxe filosofo handitzat har genezake, adibidez, Hegel, egiaren bideetatik aldentzen bada ere bere egiazko filosofia. Harek idazteko moduak liluratu gaituelako. Eta berdin esaten ahal da Shopenhauer batengatik.

Erabaki dut lantxo honetan egiari ahalik eta lotuen joatez batera nire prosaren estiloa ere izatea garbia, ederra. Inportanteena, hala ere, egiari lotzea da. Eta, nire pentsakizunetan sarri gertatu zaidan bezala, nire lehen liburura itzultzen naiz. Konfesatua ere dago liburu hura, baina oraindik interesgarria dela deritzot. Ni, orduan, oso influentziatua nengoen materialismo dialektikoaz. Baina beste eragin asko banituelako nahi izan nuen, inor ez da ohartu, logika dialektikoan jardun beharrean logika formalaren

bitartez, eskuinaren logika, adieraztea nire ideal progresistak. Horretara eskuina batere argumentazioarik gabe uzten ei nuen. Baina Aristoteleren logikaren antza handia duen predikatuen logika erabiliz iritsi nintzen ondorioztatzera ezen materialismo garbian, dena igarotzea delako, ezinezkoa dela kuantifikatzaile unibertsala sartzea, unibertsal bihurtzerik ezin dela. Horrela igarotzea molde dialektikoan gertatzen dela afirmatzea falsua da. Hobe da afirmatzea kosmos material hau igarotzea dela beste adjektiborik eransteke. Ni iritsia nintzen materialismorik garbienera, eszeptizismora, hain zuzen ere.

Eszeptizismoa sortu zen Platonen akademian, akademia hartan jarraitu zutenen pensamenduaren baitan. Hala ere, Sokrates izan bazen ere arrazonamendu induktiboa eta definizio unibertsala ekarri zituen, ez zioten hari eta Platoni jarraitzen unibertsaltasunaren posibilitateaz, eta horrekin batera zientziaren posibilitateaz negatiboak ziren. Platonek formak bereizi zituen, definizio unibertsalak, esentziak, baina materialismo garbian ez denez hori egiten, edozein dela objektu material bati ematen diogun definizioa beti da posible definizio hoberik, eta beraz sekula ezin daiteke definizio bat unibertsala izan materialismoan, erran daiteke okerrrik gabe eszeptizismoa dela materialismoak hartu duen lehen teorizazioa. Eta ez bakarrik lehen teorizazioa, teorizaziorik egiazkoena materialismoarena eszeptizismoan dago.

Baina eszeptizismo klasiko hura erori zen larregikerietan jausi gabe materialismo garbian jarraituz platonismoan eta aristotelismoan egiten zen formen bereiztea bada posible kritikatzeko eta arrakasta handiz. Zeren Platonek, adibidez, oso modu arkaikoan egiten baitu formen bereizte hori, eta berdin gertatzen zaio bere ikasle Aristotelesi. Definizio hobeak

beti direla posible dio eszeptiko moderno batek, unibertsaltasunera, materialismo garbian, ezin baita iritsi, eta unibertsaltasuna izango litzateke, eta da, topea, eta portu definitibo, legenda poetiko samar batek dioen moduan. Izarren definizio bat, Eudoxorena, onartu zuen Aristotelesek, eta teleskopioekin egin ahal izan dira definizio hobeak, eszeptikoak dioen moduan, materialistak dioen moduan, eta holaxe eskolastikaren erdi aroa, aristotelismoaren komentaristena, pasatu da historiara garai iluna bezala. Eta hori ez da justua.

Orain argituko dut zergatik ez den justua aristotelismoaren gainbehera. Jakinekoea da nola a prioristikotasunak adierazten duen unibertsaltasuna, eta Errebelazioaren bururatzear, Jesusek kontzienteki egiten zituen mirarien definizioan a prioristikotasuna ageri-agerikoa da, beraz unibertsaltasuna ezagutzen gutxienez bazuen Jesusek, hori baino gehiago ere bada miraria, baina ni geratzen naiz horrekin. Eta gauden gaiarekin jarraituz zer ondorio duen horrek egiari buruz dihardugularik dudak komentatu. Horrek erran nahi du materialismo garbian ezinezkoa dena, definizio unibertsala, Jesusen baitan badela posible. Eta objektu baten definizio unibertsala da horren esentzia, horren forma definitibo, horren arima ere aristotelismoan. Eta Jesusekin jakiten dugu Platonek egin zuen formen bereiztea egiazkoa dela, ez dela soilik intuizio sobresalientea, eta bai egiari lotutako ondorio erlazio bat. Baina humanoen definizio unibertsala, arimaz dihardut, ez dugu guk, Jesusek dauka. Eta guk ez dugunez horregatik beti zaigu posible definizio hoberik egitea, eta sekula ez dugu iristen kosmos honetan egiazko definizio unibertsalera, hori Jesusek dauka. Baina badakigu ez intuizioz eta bai errealtatean gertatutako mirariei erreparatuz, ondorio erlazio sinple egiazko batez, materialismo garbiak, eszeptizismo modernoak, ezin duena azaldu mirariei,

Jesusen mirariei, erreparatzen ez badie behintzat. Horregatik da injustua aristotelismoa errefusatzea izarren definizio bat unibertsaltzat hartu zuelako. Hori baino gehiago bada Aristotelesen filosofia.

Platonen akademiaren eszeptizismoa, larregikerietan (absurdoan) jausi zena, da lehen materialismo teorizatua filosofiaren historian, eta da materialismorik garbiena, ezinezko ikusten duelako unibertsal bihurtzerik, laburbilduz afirma genezake dena dela igarotzea, baina ezin dezakegula igarotzea esplikatu definitiboki gure teoriak ez direlako unibertsaltasunera iristen. Ikasi dugu badela posible, Jesusek unibertsaltasunetik ziharduelako, baina misterio zaigu, egiazko ezagutza baten errealitate goragoko baten egiazkotasuna (don Kijotek esango zuen moduan), eta, Jesus joan zen eta ez dugu ikusten, lekukotasunengatik dakigu hori gehiago, eta asko jakitea da, eta guk jarraitzen dugu kosmos material honetan filosofia material batekin, baina ez da filosofia materialista, metafisikan ere badu gure filosofiak bere sartu irtenak egiten. Baina zientzia egiteko, ez zientzien zientzia eta bai zientzia egiteko ezin dugu mirariei begira jardun, hor misterio santu bat dagoelako, eta hortik ezin atera dezakegu ondorio materialik (etika eta politika alde bat lagata, jakina). Beste gauza bat izango litzateke mirariak egiten bageneki, baina ez dakigu.

Badago beste gauza bat esan nahiko nukeena. Iniziatiba humanoa denean materialismo garbitik nekez ateratzen ahal gara, beti jausten gara materialismo garbian, historiak hori erakusten du, baina Errebelazioaren historia bestelakoa da. Hor iniziatiba Jainkoaren baitatik dator, eta gora jasoak gara, filosofo bezala diot, metafisikara ere. Beti ere oinak lurrean ditugularik, erotu gabe.

Eta hanka sartze artean da gure ibilia mundu honetan, kosmos material honetan. Eta eszeptizismoan ere jausten gara, ni jausi nintzen bezala.

Gaur egun nik farorik badut, eta espero dut portu definitibora iristea ere. Ekaitz zakar batek ez nazala galdu. Amen.

Roman Garmendia